

San Andres ferien egitaraua 2008

OSTIRALA, AZAROAREN 28a

- 17.00-20.00 GLOBO AEROSTATIKOA. Foruen plazan
 19.00 GAITA-MUSIKA. Foruen plazan
 20.00 ZESENSUZKOA. Foruen plazan
 22.00 NAFARROAKO ZALDIKOAREN ERRETZEAREN HASIERA Santiago plazan

LARUNBATA, AZAROAREN 29a

- 10.00-14.30 NAFARROAKO ZALDIKOAREN II. LEHIAKETA MORFOLOGIKOA. Santiago plazan
 10.00-22.00 NAZIO MAILAKO BADMINTON ZIRKUITOA Lizarreria kiroldegian
 19.00 GAITA-MUSIKA. Foruen plazan
 20.00 ZESENSUZKOA. Foruen plazan
 20.00 **LIZARRAN KANTUZ** Irteera Baxenabarra kaletik
 20.30 GOLDEN APPLE QUARTET: «LOS GOLDEN EN SERIO» Golem-Los Llanos aisialdigunean

IGANDEA, AZAROAREN 30a

- 5.30 AURORA SAN ANDRES OHORETAN
 8.00 DIANAK
 8.00 AZIENDA FERIA TRADIZIONALA. Santiago plazan
 9.00-14.00 ESTELLERRIKO ARTISAUTZA ERAKUSKETA Foruen plazan
 9.00-14.00 ELIKAGAIEN FERIA TRADIZIONALA. Foruen plazan
 9.30-14.00 LAU T'ERDIKO VII. TXAPELKETA Remontival pilotalekuan
 9.00-14.00 SAN ANDRES FERIAK I. ARGAZKI LEHIAKETA. Coronación plazan
 9.00-14.00 ERAKUSKETA INGURUMEN BOLUNTARIOTZA PROIEKTUA, Coronación plazan
 10.00-14.30 URBASA-ANDIAKO V. GAZTA LEHIAKETA San Martin plazan eta San Nikolas kalean
 10.45 UDALBATZAREN IRTEERA UDALETXETIK.
 11.00 MEZA, HIRIKO PATROIREN OHORETAN San Pedro Ruakoa elizan
 12.30 KALE-ANIMAZIOA TXISTULARIEKIN
 13.00 NAFARROAKO ARETXEAREN HERRI-DASTATZEA San Martin plazan.
 18.00 PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK
 1. Partida: Mikel Goñi - Merino / Sarralde - Arruti
 2. Partida: Titín III - Beroiz / Gonzalez - Eulate
 19.00 GAITA-MUSIKA. Foruen plazan
 20.00 ZESENSUZKOA. Foruen plazan
 20.00 ANTZERKIA: «MENÚ DEL DÍA» Golem-Los Llanos aisialdigunean (6 €)

ASTEARTEA, ABENDUAREN 2a

- 19.00 DASTATZE-AZALDUA: GAZTAREN ETA ARDOAREN EZKONTZA Dastatzera joateko gonbidapena jaso beharko da Udaletxeko bulegoetan (gehienez 2 lagun, 60 laguneko tokia bete arte). María Vicuña Gazteriaren Etxean

ASTEAZKENA, ABENDUAREN 3a

- 5.30 AURORA SAN FRANTZISKO XABIER OHORETAN
 13.00 KONTZERTUA, VALTIERRAKO MUSIKA BANDA ETA VIRGEN DE LA NIEVA ABESBATZAREKIN San Joan elizan
 16.00 LAU T'ERDIKO VII. TXAPELKETA Remontival pilotalekuan
 17.00 IRRIBARREAK FOFITO ETA MONICAREKIN (haurrentzako emanaldia) Golem-Los Llanos aisialdigunean
 20.00 BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIK TALDEAREKIN EUSKARAZ KANTA DEZAGUN SAIOA Julian Romano musika eskolan (sarrera: 1 €)

LARUNBATA, ABENDUAREN 6a

- 11.00-14.30 ARDO EKOLOGIKOKO IV. FERIA Lizarreria kiroldegian
 12.00 «URREZKO AIZKORA» BINAKAKO AIZKOLARI-TXAPELKETA 2008/2009 LARRETXE-ATUTXA II / LOPEZ AZPILICUETA-VICENTE Harrijasotzearen erakustaldia Remontival pilotalekuan (sarrera dohainik)
 17.00 LAU T'ERDIKO VII. TXAPELKETA Remontival pilotalekuan
 22.30 KONTZERTU GAZTEA: RIFTER y PULMÓN VERDE María Vicuña Gazteriaren Etxean (sarrera dohainik)

ABENDUAREN 7a eta 8a

- Goizez eta arratsalde: LAU T'ERDIKO VII. TXAPELKETA Remontival pilotalekuan



kotarro

6. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E
 31200 Lizarra - Nafarroa
 Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
 Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
 Ale kopurua: 800

UDALBIDE
 ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluak edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.

Garean-Jarduerak

Lizarran Kantuz

azaroak 29
urtarrilak 31
otsailak 28
Arratsaldeko 20.00tan
Baxenabarra kaletik.

Txokolipuinak

abenduak 17
urtarrilak 21
otsailak 18
Arratsaldeko 18.00tan
La Bota Elkartearen egoitzan



Jolas-Solas

abenduak 10
urtarrilak 14
otsailak 4
Arratsaldeko 18.00etan
Gazteriaren Etxean

Larunblai

abenduaren 13 eta 20
urtarrilaren 17, 24 eta 31
otsailaren 14, 21 eta 28
Arratsaldeko 16.30etatik 18.30etara
Gazteriaren Etxean

Garean Irratian

Larunbatero 12:30tik aurrera,
Lizarrako Punto Radio-n
(FM 93.5ean).



Los Llanos desiorako objektu ezkutua

Etxeak, kiroldegia, hotela eta, oraingoan, museoa proposatu dira hurrenez hurren. Parkea, zelaia, zuhaitzak eta arnasgunea aldarrikatzen dituzte kontrajartzen direnek.

Los Llanos izeneko parkea Lizarrako azken urteotako historian behin baino gehiagotan hedabideetan eta jendearen arteko elkarriketetan solasgaia izan da. «Zain dezagun Los Llanos» azken 30 urteotan behin baino gehiagotan entzun da gure kaleetan. Halaber, parke honetan eraikin desberdinak egiteko asmoak behin baino gehiagotan mahairatu baitira.

1978. urtean 90 etxebizitza egiteko proiektua aurkeztu zen eta udalak onartu zuen. Egun horietan protesta ugari egin ziren eta Lizarrak ezagutu duen manifestazio handienetarikoa bat burutu zen: 4.000 lagun bertaratu ziren. Dena den, mobilizazio hau ezagutzen dutenek bertan islatu zen aniztasuna azpimarratzen dute bereziki.

**1978. urtean
90 etxebizitza
egiteko proiektua
aurkeztu zen.**

Manifestazioa egiteko eskaera sinatu zutenen artean, egun Nafarroako Gobernuaren kontseilaria eta parkean Museo Etnografikoa egitearen sustatzaileetarikoa bat, Juan Ramon Corpas zegoen.

Azkenean, udalak atzera egin zuen eta etxeak egiteko proiektua bertan behera gelditu zen. Hala ere, 1989. urtean Los Llanoseko San Benito komentua polikiroldegi bilakatzeo egitasmoa azaldu zen. Berrito ere eztabaida zabaldu zen gure herrian. Izan ere, oso erakargarria zen Lizarrak polikiroldegia izatea eta hiritar askoren ustez, parkea toki aproposena zen bertan kokatu ahal izateko. Dena den, berrito ere mobilizazioak eta errekurtsio legalak hasi ziren. Kontuan hartzekoa da garai horretako alkatetzatza UPNren esku zegoela eta

Nafarroako Gobernuak PSN-k zeukala. UPNk polikiroldegia San Beniton egin nahi bazuen ere, PSN kontra zegoen. Azkenean, arazo legalak eta administrazioak zirela medio, proiektu hau ere bertan behera gelditu zen eta polikiroldegia egungo tokian eraiki zen.

Urte batzuk pasa bezain laster, berriro ere beste egitasmo bat azaldu zen. Oraingo honetan hotela eraiki behar zen, hain zuzen ere. Dena den, 1997. urtean Los Llanos babesteko Plan Berezia onartu zuen Udalak eta parkean eraikitzea galarrastzen zuen. Orain, 2008. urte honetan, udalak eta Nafarroako Gobernuak

Museo Etnografikoa egin nahi dute. Berriro ere, herritar batzuek diote Los Llanos parkea zaindu behar dela eta bertan horrelako eraikinak eraikitzeak ekarriko duela beste eraikin batzuk egiteko aukerari atea irekitzea eta

parkeari eginen zaion kaltea handia izanen dela. Beste batzuen ustez, museo hau egiteko tokirik aproposena parkea da eta berak ez du kalterik jasoko, orain baino hobeto egonen baita. Eztabaida bertan dago eta, berriro ere, Los

Llanos parkearen inguruan tira-birak ikusiko ditugu. Etorkizunak esanen digu zein den kapitulu honen bukaera.

1989. urtean Los Llanoseko San Benito komentua polikiroldegi bilakatzeko egitasmoa azaldu zen.



Montejurrako txoriak, Montejurra laket



Regino Etxabe

«Latxaga» eta «Los Llanos»

Nik, Lizarrako txoria izanik, Lizarra laket. Baina, Lizarrako txoria izanik, badut Lizarran niretzat bereziki maitatua den leku bat: Los Llanos parkea. Udaberrian platanoak, zumarrak, makalak, ezkiak eta sahatsak berdatzen ikusteko; udaren egun beroenetan asfaltoren sargoritik ihes egiteko, edo, garai honetan, udazkenean, nire alabarekin orbel-mendiak eraikitzeko. Hori dena, egunotan, heldutasunaren apaltasuna heldu zaidanean. Baina gaztaroaren beste oroitzapenak ere biziki etortzen zaizkit burura...

Baina, badirudi, ez da bakarrik Lizarrako txoria izanagatik. Badirudi xarma berezi hori beste herriko txoriek ere senti dezaketela.

Hau da «Latxaga» idazle donostiarraren kasua. Bere hitzak irakurtzean berak idatzitako testu eder batean («Zugaitz zelaiak Lizarran»), lerro artean bere maitemintzea hauteman dezakegu. «Badauka Lizarrak toki bat guztiz berexia, ederra, benetan, danentzat atsegina. Abo zabalik gogotik deitzen dutena: "Los Llanos"», hasten da bere izkribua.

Eta maitasun adierazpen honi jarraipena emanez, aurreraxeago aitortzen du: «"Los Llanos" izeneko tokiak merezi luke euskal izen bat jartzea: tokia benetakoa, naiko eroso, zabala aurrak jolasteko eta lasterka ibiltzeko ta udaran epela. Zugaitz galantak, egokiak ditu egurasten ibiltzeko. Lizarra errian nola beroaldiak izaten dituzten, erria nola ur ondoan dagon naiko atsegiña da toki ori. Ibaia laster dijoa erria milikatzen ta itzala zabaltzen...».

Nahikoa da. Maitale sutsu horren jeloskor ez egoteko, ez dut hitz bat gehiago irakurri nahi.

Udalbide.net
www.udalbide.net

ALBISTEA: ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberria eta ikus ezazu zure UDALERRIAN informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hizkuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTEKARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net
www.udalbiltza.eu

BAR

OLARRY

Félix Huarte plaza, 7
31007 IRUÑA
Tel. 948 264 576



Los Llanos

Gaurkotasun handiko gaia dugula aitzakiatzat harturik Lizarrako parke nagusiaz egin ditugu galdera hauek:


1. Definitu Llanos parkea hitz gutxitan.
2. Nola hobetu Llanos parkea?
3. Oroitzapen edo gertaera bereziren bat Llanosetan?



Eneko Etxarri

27 urte, irakaslea

1. Nire ustez erran daiteke Lizarrako birrikak direla, konparazio bat eginez, pixka bat esajeratuz, Brasilentzat Amazonas eskualdea dena.
2. Dagoen bezala ongi dagoela iruditzen zait, ez zait hobetzeko ezer bururatzen.
3. Ni oso kirolzalea naiz eta Llanos parkea kirolak praktikatzeko leku aproposa da. Beraz, entrenatzeko, korrika egiteko, erabiltzen dut.



Iñaki Fidalgo

15 urte, ikaslea

1. Lizarrako aurpegi naturala.
2. Nik handiagoa eginen nuke, hau da, zabalagoa. Aparkalekuak bertze toki batera eraman eta honela handitu ahal izateko azalera izanen litzateke. Bertze ezer ez nuke aldatuko, oso polita baita.
3. Behin gogoan dut oso ongi pasa genuela ibai inguruan. Ibaiaren alde batetik bertzera enborra zegoen gurutzaturik eta han ibili ginen lagun guztiak batetik bertzera igarotzen, jolasean, enborra apurtu zen arte. Egun hartan etxera bustita iritsi nintzen.



Xabier Legarda

34 urte, garabiduna

1. Lizarrako birrikak eta zalantzarik gabe daukagu tokirik politena.
2. Nik ibaiaren bertze aldeko guztia, igerilekutik pasarelaraino elkartuko nuke. Uste dut horrelako zerbait aurreikusita dagoela. Batetik bertzeraino ibilbidea edo eginen nuke.
3. Badakizu (barre eginez dio), «alde» horretatik galdetu nire emazteari. Beno, lagunekin elkartu eta horrelakoak...



Aida Irigoien

15 urte, ikaslea

1. Lasai egoteko toki ederra. Lagunekin hizketan ibiltzeko.
2. Ni oso futbolzalea naizenez... porteriak jarriko nituzke futboleko hobeki jokatu ahal izateko.
3. Iaz ikasturte amaierako afaria egiteko lagun guztiak Llanosetan geratu ginen, bertan afaldu genuen eta oso ongi pasa genuen.

AROA
Ardo Eko...logiko!

Zurukoain
Deierri
31292 Nafarroa
948 555394
info@arowines.com

Argazkiaz
zerbait desberdina
sortzen dugu

FOTOLIZARRA

Karlos II Gaiztoa, 3 behea
31200 Lizarra - Nafarroa
Telf: 948 553 262

www.fotolizarra.net • info@fotolizarra.net



Gure animatzaileen begirada

Gareanekin zenbait ekintzatan –Txokolipuinak, Jolas-Solas, Lizarran kantuz eta Larunblai– bidelagun, animatzaile eta partaide ditugun lagun batzuekin hitz egiteko tarte hartu dugu.



Txokolipuinak, Ainhoarekin

Ainhoa Ruiz Aisa, 26 urtetako, Lizarrakoa da. Antzerkiaren munduan sartuta dago eta bitan parte hartu du Txokolipuinetan, Eba Azpilikueta Altsasuarrarekin batera.

— **Kotarro:** *Ainhoa, zer iruditzen zaizu Txokolipuinak?*

— Ainhoa: Oso ideia ona iruditzen zait. Ikastolatik kanpo gure hizkuntza bultzatzea beharrezkoa dugu, bai

helduetan eta bai haurretan. Nire ustez oso jarduera gutxi daude haurrentzat euskaraz. Batez ere Nafarroan. Umeentzat ere momentu berezia da. Lagunekin elkartzea, gurasorik gabe egotea eta ondo pasatzea da beraien helburua. Honek asko errazten du ipuin kontalarien lana. Guk bidali nahi diegun mezua biltzeko oso irekita daudelako.

— **Kotarro:** *Zer motatako ikuskizunak eskaintzen dituzue Txokolipuinetan?*

— A: Oraingoan, munduan barne milaka kultur desberdin daudela erakustea da nahi duguna. Horretarako, bi piraten pertsonaian sartu, eta altxor baten bila bizi ditugun bidaia kontatzen dizkiegu. Gure antzezlanak oso interaktiboak dira. Haurrak (eta gurasoak, zergatik ez) kontatzen ari garen istorioan parte hartzea oso garrantzitsua ikusten dugu. Beraientzat dibertigarriagoa egiten duelako, ulertzeko errazago egiten delako eta arreta mantentzea kostatzen ez zaielako. Guzti hau elkartuta, gero zer kontatuko dugun jakiteko gogoia izatea lortzen da. Eta guri oraindik gertatzen zaigun bezala, jolasen bidez askoz errazago ikasten direla gauzak pentsatzen dugu.

— **Kotarro:** *La Bota elkartearen izaten da Txokolipuinak. Zer moduzko tokia da ipuinak kontatzeko?*

— A: Oso tamaina ona dauka dagoen haur kopuruarentzako. Eta lehen esan dudan bezala, ikastolatik kanpo egotea egokiena iruditzen zait. Txokolate eta ogia jateko atsedendian, kalera atera daitezke arriskurik gabe nahi dutenak. Leku bikaina.

— **Kotarro:** *Ainhoa, zergatik sartu zinen antzerkiaren munduan? Gustora al zabilta?*

— A: Ez dut pentsatu nahi duela zenbat urte, ikastolan, antzerki tailerra egin genuen lon Barbarinekin. Esaten duten bezala, berak sartu zidan antzerkiaren zizaretzoa eta gaur egun arte. Ikastolako antzerki taldean sartu hiru edo lau urtez (hemen ere lon zegoen zuzendari moduan), eta hau amaitzerakoan Nafarroako Antzerki Eskolan sartzea erabaki nuen, antzerkia alde batera ez uzteko. Ikasketak bukatu nituenetik ez diot lan egiteari utzi. Antzerki talde berriak osatu bai Lizarran nola Iruñean, beste taldeentzat ere lan eginez, edo udaletxe edo Nafarroako gobernuak kontratatuta. Esaten dute, mundu honetan lan egiteko Madrilera edo Bartzelonara joatea beharrezkoa dela. Ez dut uste hau horrela denik, eta salbuespena banaiz ere, oso harro nago nire buruaz.

Jolas-Solas Emilia, Estibaliz eta Maiterekin

Emilia Velaz, Estibaliz Santamaria eta Maite Goikoetxea Jolas-Solaseko animatzaileak dira. Emiliak magisteritza ikasi du, Estibalizek animazio soziokulturala eta Maite magisteritza bukatzen ari da. Galdera batzuk egin dizkiegu animatzen duten Jolas-Solasi buruz.

— **Kotarro:** *Zenbat urte dituzte haurrek?*

— Bost urtetik zazpi urte bitarteko haurrak datoz. Lizarra ikastolakoak eta Remontival eskolakoak.

— **Kotarro:** *Gustora datoz?*

— Gure ustez, oso gustora datoz asteazkenero. Aurpegieta alaitasun izugarria ikusten bait zaie. Beti barrezka eta mugimenduan egoten gara. Dibertigarria dela uste dugu. Oso ondo pasatzen dute eta dugu.

— **Kotarro:** *Ze ekintza mota egiten dituzue beraiekin?*

— Jolas ezberdinak egiten ditugu. Ezagutzen dituzten jolasak eta baita berriak ere. Kantak ere irakasten dizkiegu. Saio bakoitzean korrika edo mugimenduzko bi jolas eta lasaigoak diren beste bi egiten ditugu.

— **Kotarro:** *Zergatik erabaki zenuten Jolas-Solasen proiektuan parte hartzea?*

— Haurrak gustoko ditugu, baita euskaraz aritzea ere, gainera gure ikasketak haurrei begira daude eginak eta oso proiektu polita eta interesgarria iruditu zitzaigulako. Horregatik parte hartzea erabaki genuen.

— **Kotarro:** *Garean elkartearen ezagutzen zenuten?*

— Egia esan, **Kotarro** aldizkaria bakarrik ezagutzen genuen, baina orain beste proiektuen berri izan dugu, Larunblai... Elkarte interesgarria iruditu zaigu. Ados gaude haiek dituzten helburuekin eta aurrera eramateko laguntzeak asko betetzen gaitu. Oso pozik gaude Jolas-Solasen haurrekin primeran moldatzen garelako.





Larunblai, Nahiarekin

Nahia Zudaire Arbeloa Lizarrakoa da, 22 urte ditu eta Arte Ederrak ikasi ditu. Orain, larunbat arratsaldeetan Larunblaiko animatzailea izaten da, Iker Salsamendi eta Oihane Jordanarekin batera. Nahiaren bigarren urtea da Larunblaiko animatzaile gisa.

— **Kotarro:** *Nahia, zer da Larunblai?*

— Nahia: Umeek larunbatetan euskaraz jolasteko duten aukera bat da. Zeinean hainbat tailer, jolas, eskulan, kirolak... egiten ditugun. Era honetan euskara ez da eskoletara mugatzen eta umeak konturatzen dira badagoela eskoletatik kanpo ere euskaraz bizitzea.

— **Kotarro:** *Non eta noiz izaten da Larunblai?*

— N: Larunbatetan izaten da 16:30tatik 18:30ra Maria Vicuña Gazteriaren Etxean.

— **Kotarro:** *Zein adinetako umeek parte hartzen dute?*

— N: Zazpi urtetik hamar urte bitarteko haurrek hartzen dute parte.

— **Kotarro:** *Zer motatako jarduerak egiten dituzue?*

— N: Eskulan tailer ezberdinak egin ditugu, talde jolasak, kirolak, sukaldaritza tailerra... irteera, etab.

— **Kotarro:** *Nolakoa da umeen jarrera? Gustora parte hartzen al dute?*

— N: Umeen jarrera ezin hobea da, gogotsu etortzen dira larunbatero, egingo dugun jarduera zein izango den jakin nahian. Denek parte hartzen dute jolas eta eskulan guztietan. Giroa ona izaten da.

— **Kotarro:** *Zergatik esan zenion baietz Larunblaiko animatzaile izateko proposamenari?*

— N: Alde batetik nire ustetan beharrezkoa zelako, Lizarran haurrek eskolaz kanpo jardueraren bat izatea euskaraz. Horregatik proiektua interesgarria suertatu zitzaidan eta bestetik jarduera bezala ere interesgarria delako. Larunbat arratsaldetan, bazkal ostean etxean egon ordez, beste alternatiba bat dute, zeinean gauza ezberdinak egin eta ikasi ditzakete. Azkenik herriarentzat ere euskara beste eremuetara zabaltzea interesgarria, beharrezkoa delako.

Lizarran Kantuz, Hasierrekin

Hasier Ollo Mendoza 17 urteko Garestarra da, kurtsoan zehar Lizarran bizi bada ere. Batxilergoko 2. mailan dago eta, horretaz gain, bosgarren maila burutzen ari da Iruñeko Pablo Sarasate musika Kontserbatorioan. Txistua jo zuen urriko Lizarran Kantuzen Enea Pagola eta Iker Ollorekin batera.

— **Kotarro:** *Hasier, zer iruditu zitzaizun Lizarran Kantuz?*

— Hasier: Lizarran Kantuz oso inizatiba berritzailea iruditu zait, Lizarran beharrezkoa, euskeraren erabilera sustatzeko. Denok dakigunez, euskeraren erabilera asko txirotzen ari da azken urteotan. Hau galerazteko, eta euskerak merezi duen ospea berreskuratzeko, ba al dago jendea txistuarekin eta trikitixarekin kalera kantu egitera ateratzera bezalakorik?

— **Kotarro:** *Zein kantu jo zenituzten txistuz?*


— H: Pasaden urrian, *Aldapeko, Aitorren hizkuntz zaharra, Hiru damatxo* eta *Txoriak* jo genituen jendearen laguntzarekin, eta nola ez ba, betiko eta inoiz aspertuko ez garen kalejirak ere jo genituen: *Elizondo, Baztan, Bat bi hiru lau...*

— **Kotarro:** *Txistua jotzeko zer nahiago izaten duzu, barreneko areto bat ala kalea?*

— H: Bakoitzak badu bere xarma. Kontzertuetan, esaterako, jendea txistuaren soinuaz gozatzera doa, afinazioa, teknika, musikalitatea kontutan hartu beharko dituzu, horregatik, nabarmentzeko aukera gehiago daukazu. Dena den, kaleko giroa, lagunaren arteko, ez nuke ezergatik aldatuko. Afinazioak, teknikak, musikalitateak... ez du hainbeste inportako, baina parranda giroan egoteko eta sortzeko aukera izanen duzu.

— **Kotarro:** *Lizarran Kantuzen jendeak abestu egiten du kantutegi baten laguntzaz. Zer moduz ezkontzen dira txistua eta jendearen boza?*

— H: Egia esan sorpresa pozgarria eraman nuen pasaden urriko irtenaldian jo genituen abestiekin. Hasera batean, aitortu beharra dut, halako beldurra neukan jendeak nola ibiliko ote zen txistuaren tesituran kantu eginez. Santa Agedaren irtenaldietan, gogoratzen dut, umeek ez zutela ondo abesten txistuaren laguntzaz. Baina lehen abestiaren lehenengo soinuak aditu orduko, konturatu nintzen txistuaren soinuak ezin baino hobeto elkartzen dela jendearen ahotsarekin. Noski! Helduak abesten dute eta!



Euskaltegiko saga

Euskaldun berrien komeriak

Euskaraz ikasten ari garenoi ikasi duguna praktikan jartzen dugunean, egoera barregarriak suertatu zaizkigu behin baino gehiagotan. Hemen dituzue horietako batzuk Beñat Etxepare Euskaltegiko ikasleen ahoetatik hartuak.

Bezero euskaldun berria

Egun batean lagun bat taberna batera joan zen kafetxo bat hartzera eta hala esan zion tabernariari: «Moztu bat jarriko didazu mesedez?» Tabernariak, orduan, muztio bat atera zion. Ongi ikasi behar ditugu erabiltzen ohi ditugun hitzak, bestela...

Lehenengo urratsean bernetegi txikira

Urtero ohi bezala, AEK euskaltegiko ikasle eta irakasleak asteburuko barnetegira joan ginen. Urte hartan Lesakara joan ginen. Lizarratik kotxez abiatu eta, noski, han non elkartu behar genuen adostu behar izan genuen, Kattu taberna izango zen gure elkargunea. Euskara ikasten hilabete batzuk baino ez zeramatzen neska talde bat Lesakara iritsi eta bertako bati galdetu zioten:

- Barkatu, bar Katu non dago?
- Bai, barkatuta zaudete, zer nahi duzue?
- Bar Katu
- Baietz bada, barkatuta zaudetela, eta?
- Barrrrr Ka-Tu.
- Ah!!! Kattu taberna! Bai...

Denak iritsi ginen Kattu tabernara eta asteburu bikaina izan zen hura.

Tabernari euskaldun berria

Lazkaoko jaietan, taberna bateko barraren atzealdean euskaldun berri bat ari zen lanean. Gizon bat sartu zen eta whisky izotzarekin eskatu zion.

Denbora pasa zen eta bezeroak esan zion:

- Zer pasatzen da nire wiskiarekin? Hainbeste denbora behar al duzu ateratzeko ala?

Orduan tabernariak erantzun zion:

- Barkatu wiskia aurkitu dut, baina izotzarekin marka ez dut aurkitzen.

Beñat Etxepare Euskaltegia, aurtengo datuak

Euskaltegian, guztira 83 ikasle ditugu. Horrela daude banatuta:

Astelehenetan, asteartetan, ostegunetan eta ostiraletan 15:00etatik 16:30etara. **Hasiera mailan** 11 ikasle.

Astelehenetan, asteartetan, ostegunetan eta ostiraletan 15:00etatik 16:30etara. **1B mailan** 12 ikasle.

Astelehenetik, ostegunera 19:30etatik 22:00etara. **1A mailan** 11 ikasle.

Astelehenetik, ostegunera 20:00etatik 22:00etara. **1B mailan**: 9 ikasle.

Astelehenetik, ostegunera 19:30etatik 21:30etara. **2. mailan** 9 ikasle.

Astelehenetan eta asteartetan 18:00etatik 20:00etara. **3. mailan (EGA)**. 12 ikasle.

Autoikaskuntzan, maila guztietan. 19 ikasle.



KATXETAS

taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010



GARI eta SEI



UDALAREN ASTAKERIEKIN,
BADIRUDI ANDER DEUNAREN
FERIAK URTE OSOAN ZEHAR DIRELA.

ONDO ENTZUN SEI!!!

LLANOSETAN MUSEORIK EZ

LLANOSETAKO
MUSEO
ETNOGRAFIKOA

LIZARRAKO
UDALA




denborapasak



Gurutzegramak

Estellerriko
kirolariak



Ezker eskuin


4. Bilboko ura edaten duena
5. Esne marka ezaguna
6. Txirrindula malabarista
9. Korrikalari bikaina

Goitik-behera

1. Apostoluaren izena
2. Eskubaloilaria
3. Eulateko Martinena
7. General golpista
8. Pailazo-ohia

Euskalglofoa

Freno mota dirudi, baina ez da. Llanosetan daude...



eta
Gaztel. zuringoa

LIBURUDENDA

INO

PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

markoen ipinketa
zurriola
enmarcaciones

Kale Nagusia, 80
31200 Lizarra-Estella
Tel.: 948 55 22 86 - 948 55 29 94